

Hitzaurre gisa

Uxoa Anduaga

Soziolinguistika Klusterra

u.anduaga@soziolinguistika.eus



Bat Soziolinguistika Aldizkariaren urteko bigarren ale honek, Soziolinguistika Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean egin duten euskararen bilakaera soziolinguistikoaren gaineko hausnarketa lana du oinarritzat. Lan horrek helburu bikoitzari erantzun dio. Batetik, eskura dauden datu eta azterketa soziolinguistetan oinarrituta, azken 30 urteetan euskarak izan duen bilakaera nolakoa izan den agerian jartzea izan du xede (1981-2011). Eta diagnostiko horretan oinarrituta, bestetik, aurrera begirako erronkak zeintzuk diren identifikatzea bilatu da.

Proiektu horrek gaian adituak diren hiru zuzendari izan ditu. Iñaki Martinez de Luna, Xabier Erize, eta Mikel Zalbide arduratu dira euskararen bilakaeraren inguruko analisia burutzeaz, bai eta horren gaineko dokumentu bat osatzeaz ere. Baina bada modu aktiboan parte hartu duen besterik, jatorrizko dokumentu horren gainean lanean aritu baitira hizkuntza alorrean arituak eta adituak diren beste hainbat kide.

Guztien ahaleginaz osatu eta mamitu den ezagutza aberats horren emaitza izan da, batetik, 2016ko ekainean Donostian ospatu zen Jardunaldia. Ekitaldia ordu arteko ekarpenak jendaurrera eraman eta horiek gizarteratzeko lehen urratsa izan zen. Bertan eztabaidagai izan ziren, euskararen transmisio eta gaitasuna; euskal herritarren portaera linguistiko-koen motibo subjektiboen bilakaera; eta mintzajardunaren azken urteotako bilakaera.

Ezin ahaztu, bestetik, gizarteratze lan horretan BAT aldizkaria ere baliabide garrantzitsua dela, eta hain zuzen ere horregatik, 99. eta 100. aleek euskararen bilakaeraren gaia heldu diote bete betean. Esku artean duzun honek, zehazki, Iñaki Martinez de Lunak hizkuntza gaitasunaren inguruan egindako ekarpenak eta Xabier Erizek iritzien eta jarrearen inguruan egindako hausnarketak biltzen ditu. 100.-ak aldiz, Mikel Zalbidek hizkuntza erabilerari buruz egin duen lana du hizpide. Bi aleek, halaber, bere baitan jasotzen dituzte jatorrizko testu horiek aberasteko helburuz ekarpengile desberdinek egin dituzten lanak.

Ale honi hasiera ematen diote **Patxi Baztarrikaren** hitzek, 2016ko Jardunaldia oinarri hartzen duen “Euskararen bilakaeraren argi-lun gurpilean: hazkundetik garapen iraunkorrera bidean” idatziarekin. Euskararen etorkizuneko erronka eta arrisku posibleen testuinguruaz hausnartzeko bide ematen duena.

“Euskararen transmisioa eta gaitasuna, eta aurrera begirako erronkak” izenburupean euskararen bilakaeraren gogoetari bide ematen dio **Iñaki Martinez de Lunak**. Helburu bikoitzari heltzen dio bere idatzian. Batetik, euskararen transmisioa eta gaitasuna zen-

batekoak eta nolakoak diren aztertu ditu, eta bestetik horien emaitzen balantzea burutu du. Sozializazioaren paradigman oinarritu da horretarako, transmisioa eta gaitasunaren balorazioa egiteko ezinbestekotzat jotzen duena, eta Hizkuntza Indarberritze prozesua hartu du ostertzat.

Martinez de Lunak aipatzen dituenekiko zenbait ekarpen proposatzen ditu **Iñaki Iurrebasok** bere artikuluan. Zehazki, hizkuntza-gaitasuna aztertze erabilera kontuan izateak duen garrantzia azpimarratzen du, eta euskara ez ezik, gaztelaniazko eta frantsesezko erabilerak ere aintzat hartzea proposatzen du. “Hainbat gogoeta hizkuntza-gaitasunaren inguruan” izena duen testuaren muinetako bat, hala, hizkuntza gaitasunaren *continuum* izaera azpimarratzean datza.

Euskararen transmisioak dauzkan argi-itzalak ardatz hartuta osatzen du **Patxi Juaristik** Martinez de Lunaren ekarria. “Hizkuntzaren transmisioan eragiten ari diren faktoreen azterketa” lanak euskararen transmisioan familia, eskola, unibertsitatea edota euskaltegiak, bezalako faktoreek duten eragina jartzen du agerian. Horri esker, euskararen transmisioan dauden ahuldade eta indarguneak hobeto ulertzea ahalbidetzen du, bai eta horietaz inoiz baliatzeko aukera zabaldu ere.

Xabier Erizeren lana da, Iñaki Martinez de Lunarekin eta Mikel Zalbiderekin batera, euskararen bilakaeraren azterketako hiru zurtointetako bat. Erizeren lanak indar egiten du euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboetan, horien bilakaera eta aurrera begirakoak identifikatuz batetik, eta horiek euskal ikerketa eta praktika sozio-linguistikokoan finkatzeko beharra agerian jarritz, bestetik. “Herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboak” artikuluak bistako egiten da, hala, motibo subjektiboek ezagutzak sustatzaileen jardueran izan beharko lukeen paper garrantzitsua.

Xabier Erizeren ekarpenak oinarri hartuta, gizarte antropologia eta teoria feministatik abiatutako hausnarketa proposatzen du **Jone Miren Hernandezek**. “Jarrera eta motibazio kontzeptuez harago...Hizkuntza kultura, praktikak eta emozioak” artikuluak “azken

hamarkadetan hizkuntzaren dimentsio subjektiboak izandako garapenean” jartzen du soa, hizkuntza kulturaren garapenean, identitatea eta praktika gorpuztuetan, eta ekintza eta emozioen arteko loturan arreta jarritz.

Azkenik, iritzi eta jarreraren gaia aberastu asmoz, **Nekane Arratibel, Asier Irizar eta Joxpi Irastortzak** portaera linguistikokoan inguru sozialak duen eraginaz hausnartzeko tarte zabaldu dute. Norbera eta gizartearen arteko harremanean “zoru komun” baten eraketak duen garrantzia argitara ekarriz. “Hizkuntza portaeren motibo subjektiboez hausnarketa” artikuluak abiapuntu hori hartzen du euskararen inguruko diskurtso berri bat eraikitzeko, zeina berdintasunetik abiatutako diskurtsoa behar duela izan jarriko den agerian. •